Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5829

ERABAKIA, UPV-EHU/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Kontzertuaren Batzorde Mistoarena, Luis Bujanda Fernández de Piérolak aurkeztutako eskabideari buruzkoa.

Ikusi da 2010eko ekainaren 7an Luis Bujanda Fernández de Piérolak (16544702C NAN-zk.) UPV-EHU/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Kontzertuaren Batzorde Mistoari idazkariaren bidez aurkeztutako eskabidea. Luis Bujanda Fernández de Piérola medikuntzako irakasle titularra 2008ko otsailaren 19tik (2008ko urtarrilaren 25eko BOE, 4892. orr.) Donostiako Irakaskuntzako Unitatean. Eskabide horretan Donostia Ospitale Konplexuan bere izenari atxikitako plaza bat sortzeko eskatu zuen (kategoria: irakasle titularra; jakintza-arloa: medikuntza; departamentua: medikuntza; kargua: mediku laguntzailea; ospitale zerbitzua: digestio-zerbitzua), laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak burutzen jarraitzeko.

2009ko urtarrilaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (6. zk.) aipatu kontzertua argitaratu zen, II. eranskin eta guzti. Eranskin horretan, geroaldiko unibertsitate-ospitaleetan katedradun eta laguntzako plaza duten irakasle titularren zerrenda jasotzen da, baina Luis Bujanda Fernández de Piérola ez da aipatu zerrendan ageri.

Bidezko egiaztapenak egin ondoren ikusi da, Bujanda Fernández de Piérola, kontzertua onartu eta argitaratzeko egunean, Donostia Ospitaleko mediku digestio-aparatuko fakultatibo espezialista legez ageri dela, estatutupeko finko gisa jarduneko zerbitzu egoeran; 2006ko urrian eskuratu zuen plaza hori orduko lekualdatze-lehiaketan parte hartzearen ondorioz.

Azaldutakoa ikusirik, kontzertuaren II. eranskineko geroko unibertsitate-ospitaleetan katedradun eta laguntzako plaza duten irakasle titularren zerrendan akatsa dagoela ikusi da, izan ere, Donostia Ospitaleko Digestio-zerbitzua Ospitale Zerbitzuan erreklamaziogilearen izenari lotutako plaza ez baita ageri.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua– 105. artikuluan xedatzen denez, «herri-administrazioek, edozein unetan, ofizioz edo interesatuak eskaturik, zuzendu ditzakete euren egintzetan diren huts material edo aritmetikoak».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

5829

ACUERDO de la Comisión Mixta del Concierto UPV-EHU/Osakidetza-Servicio vasco de salud en relación con la solicitud presentada por D. Luis Bujanda Fernández de Piérola.

Vista la solicitud que con fecha 7 de junio de 2010 presenta ante la Comisión Mixta del Concierto UPV-EHU/Osakidetza a través de su Secretaria, D. Luis Bujanda Fernández de Piérola con DNI 16544702C, Profesor Titular de Medicina desde el 19 de febrero de 2008 (BOE de 25 de enero de 2008, página 4892) en la Unidad Docente de San Sebastián, en solicitud de creación de una plaza vinculada a su nombre en el Complejo Hospitalario Donostia Categoría - Profesor Titular, Área de conocimiento- Medicina, Departamento - Medicina, Cargo - Médico Adjunto, Servicio Hospitalario - Digestivo) con el fin de continuar realizando sus actividades asistenciales, docentes y de investigación.

Resultando que con fecha 9 de enero 2009 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco (n.º 6) el citado concierto cuyo anexo II recoge el Listado de Catedráticos y profesores titulares con plaza asistencial en los futuros hospitales universitarios, no apareciendo D. Luis Bujanda Fernández de Piérola en la citada relación.

Resultando que tras las oportunas comprobaciones se ha podido constatar que el Sr. Bujanda Fernández de Piérola, a la fecha de aprobación y publicación del Concierto figura como facultativo especialista médico de aparato Digestivo en el Hospital Donostia en situación de servicio activo como estatutario fijo, plaza que consiguió en octubre de 2006 a través de su participación en el correspondiente concurso de traslados.

Resultando que a la vista de lo expuesto se constata la existencia de un error en el Listado de Catedráticos y profesores titulares con plaza asistencial del anexo II del concierto, al no recoger la plaza vinculada a nombre del reclamante en el Servicio Hospitalario de Digestivo del Hospital Donostia.

Considerando lo dispuesto en el artículo 105 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, conforme al cual, «Las Administraciones públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos».

Aipatu legearen 57. artikuluan xedatua aintzat hartuaz, «1.– Herri-administrazioen administrazio-zuzenbidepeko egintzak baliozkotzat joko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, egintza horietan besterik esaten ez bada.

Salbuespen gisa, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkoak direnean, eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkionean ere bai; beti ere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik ekartzen ez badie beste inoren eskubideei edo bidezko interesei».

Kontzertuaren hamalaugarren estipulazioak, bere a), c) eta k) idatz-zatietan, Batzorde Mistoari ematen dizkion zereginak aintzat hartu dira.

Azaldutako guztian oinarrituaz, UPV-EHU/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Kontzertuaren Batzorde Mistoa bildu eta ondokoa erabaki du aho batez,

ERABAKIA

Lehenengoa.– UPV-EHU/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Kontzertuaren II. eranskina aldatzea onartzea katedradun eta laguntzako plaza duten irakasle titularren zerrenda egokitzeko. Honela, Luis Bujanda Fernández de Piérolaren izenari atxikitako plaza bertan jasoko da (kategoria: irakasle titularra; jakintza-arloa: medikuntza; departamentua: medikuntza; kargua: mediku laguntzailea; Donostia Ospitaleko ospitale zerbitzua: digestio-zerbitzua).

Bigarrena.– Erabaki honek kontzertua izenpetu zen egunera (2008ko azaroaren 24a) atzeraeraginezko ondorioak izango ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eragotzi gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 19a.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako sailburuordea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide eta UPV-EHU/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Kontzertuaren Batzorde Mistoko lehendakari legez,

OLGA RIVERA HERNÁEZ.

Considerando lo dispuesto en el artículo 57 de la citada Ley en relación con los efectos de los actos administrativos, «1.– Los actos de las Administraciones Públicas sujetos al Derecho Administrativo se presumirán válidos y producirán efectos desde la fecha en que se dicten, salvo que en ellos se disponga otra cosa.

Excepcionalmente, podrá otorgarse eficacia retroactiva a los actos cuando se dicten en sustitución de actos anulados, y, asimismo, cuando produzcan efectos favorables al interesado, siempre que los supuestos de hecho necesarios existieran ya en la fecha a que se retrotraiga la eficacia del acto y ésta no lesione derechos o intereses legítimos de otras personas».

Considerando las funciones que la Estipulación Decimocuarta del concierto atribuye a la Comisión Mixta en sus apartados a), c) y k).

En base a todo lo expuesto, reunida la Comisión Mixta del concierto UPV-EHU/Osakidetza-Servicio vasco de salud, adopta por unanimidad el siguiente,

ACUERDO

Primero.– Aprobar la modificación del anexo II del Concierto UPV-EHU/Osakidetza-Servicio vasco de salud para adaptar el Listado de Catedráticos y Profesores titulares con plaza asistencial, recogiendo una plaza vinculada a nombre de D. Luis Bujanda Fernández de Piérola en la Categoría de Profesor Titular, del Área de conocimiento de Medicina, Departamento - Medicina, Cargo - Médico Adjunto, Servicio Hospitalario de Digestivo del Hospital Donostia.

Segundo.– El presente Acuerdo tendrá efectos retroactivos a la fecha de suscripción del Concierto, 24 de noviembre de 2008, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de julio de 2010.

La Viceconsejera de Calidad, Investigación e Innovación del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco, en calidad de miembro del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud y Presidenta de la Comisión Mixta del Concierto UPV/EHU-Osakidetza-Servicio vasco de salud,

OLGA RIVERA HERNÁEZ.